



## Eskola kirola - 2025-2026eko lehiaketa araudia

# ARETO FUTBOLA (MISTOA)

## 1. JOKALEKUA

Jokalekua angeluzuzena izango da, 25 eta 42 metro bitarteko luzerakoa, eta 15 eta 25 metro bitarteko zabalerakoa.

Penalti area hiru marrak mugatuko dute. Hiru metro luze den lerro zuzen bat, ateko marrarekiko paraleloan eta marra horretatik sei metrora egina. Beste bi marrak, ateko zutoin bakoitzaren oina erdigune hartuta sei metroko erradioko zirkunferentzia bi marraztuta ateratzen diren bi kurbak izango dira. Azken marra horiek aurretik esandako lerro paraleloaren bi muturrak hondoko marrarekin lotuko dituzte.

## 2. BALOIA

Kategoria guztietan (BENJAMINAK, KIMUAK, HAURRAK ETA KADETEAK), baloiaren zirkunferentzia 59 eta 62 cm bitartekoa izango da, eta haren pisua, 410 eta 430 g bitartekoa. Larruzkoa izango da.

## 3. ATEA

Ateen neurriak hauek izango dira: 3 metroko luzera eta 2 metroko garaiera.

## 4. BALOIA ATEZAINARI EMATEA

Baloia atezainari eman dakioko:

- Baloia oinarekin borondatez ematen bazaio, atezainak baloia oinarekin bakarrik jokatu ahal izango du, inoiz ere ez eskuarekin. Hala egiten badu, atearen areatik gertuen dagoen tokian jaurtiketa libre ez-zuzena adieraziko du epaileak (KIMU eta BENJAMINEN kategorietan kornerra izango da).
- Era berean, atezainak baloia eskuaz ukitzen badu bere taldekide batek alboko sakea egin ondoren, atezainak baloia ukitu duen lekuan jaurtiketa libre ez-zuzena adieraziko da (KIMU eta BENJAMINEN kategorietan kornerra izango da).
- Jokalari batek baloia bere atezainari eman eta hark arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori jaurtiketa libre ez-zuzenarekin zigortuko da, eta atearen areatik gertuen dagoen tokitik jaurtiko da (KIMU eta BENJAMINEN kategorietan kornerra izango da).
- Ez da zigortuko arau hauste gisa atezainak baloia eskuarekin hartzea taldekide batek bularrarekin edo buruarekin ematen dionean, horretarako berariaz prestatu gabe.



## 5. ATEZAINAK AREATIK KANPO JOKATZEA

Atezain ari den jokalaria areatik kanpo baloia oinarekin jokatu dezake, eskuekin ukitu gabe.

## 6. PARTIDEN IRAUPENA

BENJAMINEN kategorian, partidaren iraupena berrogei (40) minutukoa izango da, hamar (10) minutuko lau zatitan banatuta. Zati baten eta bestearen artean bi (2) minutuko atsedenaldia egingo da. Ez da denbora geldituko. Aktan jasotako jokalaria guztiek gutxienez denbora batez egon beharko dute jokalekuan. Jokalaria bat jokalekuan partidaren lau zatietan egon ahal izateko, gutxienez zati oso batean zelaiko jokalaria moduan eta beste zati oso batean atezain moduan jokatu beharko du, edo aktan jasotako jokalaria guztiek lehenengo bi zati osoetan parte hartu beharko dute. Arau hori betetzen ez bada, partida galdutzat emango zaio, hiru eta hutseko emaitzarekin. Hala ere, partidaren tantoen aldea handiagoa izanez gero, azken hori izango da emaitza, baldin eta irabazlea araua hautsi duen taldea ez bada.

KIMU, HAUR eta KADETE kategorietan, partidaren iraupena berrogeita hamar (50) minutukoa izango da, hogeita bost (25) minutuko bi zatitan banatuta. Zati baten eta bestearen artean gehienez ere bost (5) minutuko atsedenaldia egingo da. Ez da denbora geldituko.

## 7. HUTSARTEAK

BENJAMINEN kategorian, entrenatzaile-hezitzaile bakoitzak azken laurdenean hutsarte bat eskatu ahal izango du.

KIMU, HAUR ETA KADETE kategorietan, entrenatzaile-hezitzaile bakoitzak minutu bateko hutsarte bat eskatu ahal izango du partidako zati bakoitzean.

## 8. ATEKO SAKEA

Ateko sakean (baloia atzeko lerrotik irten denean), atezainak nahitaez eskuarekin egingo du sakea, zelai erdia aurretik boterik egin gabe igaro ahal izango du eta baloia ukitzen duen lehen jokalaria areaz kanpo egon beharko du.

Ateko sakeko arau haustea eginez gero, jaurtiketa libre ez-zuzena egingo da baloiak kontrako arean lurra jo duen lekuan.

Atezainak jokaldi jarraituan baloiaren jabetza badu, eskuarekin zein oinarekin jokatu ahal izango du.

## 9. MARKAGAILUA

KIMU, HAUR eta KADETE kategorietan, partidaren aldea 8 golekoa edo gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeak hala eskatzen badu.



BENJAMIN kategorian, irabazten den zati bakoitzeko aldeko gol bat zenbatuko da. Azken emaitza gehienez lau eta hutsekoa izan ahalko da (10 minutuko 4 zati jokatzen dira) eta, horrela, sailkapenak ezarri ahal izango dira, bigarren faseko multzoak egitean kontuan hartzeko.

## 10. TXARTEL HORIA

Benjaminen eta kimuen kategorietan, txartel horiak jokalaria kanporatzea ekarriko du. Jokalaria bi (2) minutuz kanporatuko da, edo jokalaria gutxiago duen taldeari gol bat sartzen dioten arte. Hau da, jokalaria gutxiago duen taldeari gol bat sartzen badiote, kanporatutako jokalaria automatikoki sartuko da jokalekura. Aldiz, jokalaria gutxiago duen taldeak gol bat sartzen badu, jokalaria kopuru horri eutsiko dio. Arbitroak txartel horia erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalariai:

- Jokoaren arauak etengabe hausten baditu,
- Arbitroaren erabakiak hitzez edo keinuz onartzen ez baditu,
- Jokaera desegokia izaten badu,
- Joko garbiaren izpirituaren aurka jokatzen badu.

Kargu hartutako jokalaria ezingo da beste jokalaria batez aldatu.

Kargu hartutako jokalaria, zigorraren bi minutuak bete ondoren, joko zelaira itzuli ahal izango da.

Kadete eta haurren kategorietan Areto Futboleko Konfederazio Nazionalaren arautegia aplikatuko da.

## 11. TXARTEL GORRIA EDO BI HORI

Txartel gorria edo bi hori izateak jokalaria kanporatzea ekarriko du. Jokalaria 2 minutuz kanporatuko da, edo jokalaria gutxiago duen taldeari gol bat sartzen dioten arte. Hau da, jokalaria gutxiago duen taldeari gol bat sartzen badiote, kanporatutako jokalaria automatikoki sartuko da jokalekura. Aldiz, jokalaria gutxiago duen taldeak gol bat sartzen badu, jokalaria kopuru horri eutsiko dio. Denbora hori igarotakoan beste jokalaria batez ordezteka beste aldaketa bat bezala zenbatuko da.

Arbitroak txartel gorria erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalariai:

- Jokalaria indarkeriaz ari izan edo zakarki jokatu.
- Asmo iraingarriz edo gordinkeriaz jokatu.
- Kargu hartu eta gero ere, kargu hartzea merezi duen portaera izaten jarraitu.

Bi txartel horik ez dute ekarriko hurrengo jardunaldian ezin jokatu izatea; beraz, taldeak erabili ahal izango du jokalaria hori, jokatzen den hurrengo jardunaldi edo partida ofizialean.



## 12. JOKALARIAK

Arabako eskolarteko jokoetan, BENJAMIN, KIMU, HAUR eta KADETE kategorietan parte hartzeko, gutxienez 8 kirolari eta gehienez 12 izan behar dira. Aurrekoa gorabehera, partida hasi ahal izango da, baldin eta zelaian atezaina eta lau jokalaria badaude, hau da, guztira, bost jokalaria badaude. Bost badaude, jokalaria nahikoa daudela joko da eta ez da aplikatuko ez-azaltzei buruzkorik.

Zelaian atezain batek eta 4 jokalarik bakarrik joko dezakete aldi berean. Inskribatutako guztiak atezain bezala nahiz zelaiko jokalaria bezala aritu daitezke, baina atezainaren elastikoa bere taldekideena ez bezalako kolorekoa izan beharko da.

## 13. EMAITZEI BEGIRAKO DEIALDIAK

Ezin izango da kirolarien deialdirik egin emaitzei begira. Honako arrazoi hauetakoren batengatik lehiaketa jardunaldi batean parte hartzeko kirolari bat bazterten bada, deialdi hori emaitzei begira egindakoa izango da, arrazoi hauetakoren bat tarteko egon ez bada:

- a) Lesioa edo gaixotasuna.
- b) Erakundearen diziplina neurria.
- c) Eskola kirolaren diziplina araubidean oinarritutako zehapena.
- d) Eskola umearen ezintasuna, familiak erabakita edo ezinbesteko beste arrazoi batzuegatik.
- e) Izena eman duten ikasleen kopurua gehienez deitu daitezkeen kirolarien kopurua baino handiagoa denean. Kasu horretan, jardunaldietara joan gabe geratzen diren kirolariak modu ekitatiboan banatu beharko dira, izena eman duten kirolari guztiak antzeko partida kopuruan parte har dezaten.

Emaitzei begira egindako deialdiak hautematen diren entitateetako taldeek:

- a) Galdutzat joko dira partidak zeinetan ez-betetzea egin baita.
- b) Ezin izango dute lehiaketako lehenengo postua lortu.
- c) Ezin izango dute parte hartu hurrengo ikasturteko errendimendu ibilbideko lehiaketetan.
- d) Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

## 14. JOKALARIEN TXANDAKETA ETA ALDAKETAK

BENJAMINEN kategorian, aktan jasotako jokalaria guztiak gutxienez denbora batez egon beharko dute jokalekuan. Jokalaria bat jokalekuan partidaren lau zatietan egon ahal izateko, gutxienez zati oso batean zelaiko jokalaria moduan eta beste zati oso batean atezain moduan jokatu beharko du, edo aktan jasotako jokalaria guztiak lehenengo bi zati osoetan parte hartu beharko dute. Arau hori betetzen ez bada, partida galdutzat emango zaio, hiru eta hutseko emaitzarekin. Hala ere, partidaren tantoen aldea handiagoa izanez gero, azken hori izango da emaitza, baldin eta irabazlea araua hautsi duen taldea ez bada.



KIMUEN kategorian, nahi adina aldaketa egin daitezke, baldin eta arbitroak baimendu eta pilota jokoan ez badago. Edonola ere, aktan jasotako jokalaria guztiek jokatu beharko dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Aldaketak zelaiaren erdigunetik egingo dira eta ordeztutako jokalaria zelaitik atera beharko du bere ordezkariaren jokalaria zelaian sartu baino lehenago.

Gainerako kategorietan, nahi adina aldaketa egin daitezke. Aldaketak baloia jokoan dela egingo dira, epailearen baimenik gabe. Edonola ere, aktan jasotako jokalaria guztiek jokatu beharko dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Aldaketak zelaiaren erdigunetik egingo dira eta ordeztutako jokalaria zelaitik atera beharko du bere ordezkariaren jokalaria zelaian sartu baino lehenago.

## 15. ENTRENATZAILEA

Taldearekin inskribatutako entrenatzaile-hezitzaileak nahitaez egon beharko du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die zelaiaren albotik, eta jokalariz aldatzeko eta hutsarteak eskatzeko ardura du. Jokalarien, ordezkarien eta beraiekin dauden portaeraren erantzule ere bada.

Entrenatzaile-hezitzailea aurkezten ez bada, guraso arduradun bat egotea onartuko da, NANA aurkeztu ondoren, eta hura aktan jasoko da.

## 16. ESKOLA LIZENTZIAK AURKEZTEA

Parte hartzen duten talde guztiek eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko diote arbitro taldeari partida edo lehiaketa bakoitza hasi baino lehen (baliozkoa, euskarri elektronikoan edo digitalean nahiz euskarri fisikoan edo paperean), behar bezala baliozkotua eta argazki eguneratua duena.

Lizentziaren bat aurkezten ez bada, horren berri eman beharko da aktan edo txostenean, diziplina erantzukizunik dagoenez erabakitzeko. Nolanahi ere, proba jokatu egin beharko da, ezohiko inguruabarren bat gertatu ezean (hala bada, frogatu egin beharko da).

## 17. ARAUZ KONTRAKO JOKALARI ZERRENDA

Talde batek partida batean jokalaria bat sartzen badu arauz kontrako edo okerreko jokalaria zerrenda eginda, zehapen hauek izango ditu:

- a) Lehenengo arauz kontrako jokalaria zerrenda: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko du.
- b) Bigarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da eta sailkapen orokorrean hiru puntu kenduko zaizkio.
- c) Hirugarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.



Ez dago baimenduta kirolariek parte hartzea eskola kirolaren aplikazio informatikoan inskribatuta dauden erakunde bereko taldeetan ez behin-behinean ez betiko. Beraz, ez dago baimenduta partida jakin batzuetarako kirolariak kategoriaz igotzea.

Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

## 18. ARBITROAK

Arbitroek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Gutxieneko adina:

- Hamasei urte eduki behar dira benjamin, kimu eta haur kategorietako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
- Hemezortzi urte eduki behar dira kadete kategoriako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
- Arbitro federatuaren titulu ofiziala edukiz gero, hamasei urte behar dira zeinahi kategoriatako partidetan arbitro aritzeko.

b) Eskola lizentzia eduki behar dute.

## 19. LEHIAKETA MAILA

Lehiaketan izena emandako BENJAMIN talde guztiak multzoka jarriko dira, jaiotza urtea kontuan hartzen saiatuz.

Bi lehiaketa fase egingo dira.

Bigarren fasean, lehen fasean lortutako sailkapenen arabera egingo dira multzoak.

## 20. PARTE HARTZEKO ARAUDIA

Areto futbola, 8ko futbola eta 11ko futbola modalitate bakartzat jotzen dira, eta eskola ume batek ezin du parte hartu haietako batean baino gehiagotan.

**A) Eskola kirolariek adinez dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartzea.**

1.- Adinez dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartu ahal izango dute eskakizun hauek betetzen dituzten eskola umeek:

- a) Lehiaketa partaidetza ibilbidekoa izatea.
- b) Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaio izana.
- c) Ikastetxeetako taldeen kasuan, pertsona hori ikastetxekoa izatea, eta



irabazteko xederik gabeko erakundeen kasuan, kirolaria aurreko ikasturtean erakunde horretan egon izana.

d) Kirol erakundeak idatziz konpromisoa hartzea honako baldintza hauek betetzeko:

- Baimendutako jokalaria bakoitzak jokatzen emandako denboren batura ezin daiteke izan partidaren iraupen osoaren ehuneko 50 baino gehiago.
- Goragoko kategoriako kirolariek talde berean parte hartzeko baimen bat baino gehiago izanez gero, kirolariek debekatuta izango dute aldi berean jokatzea.

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak, salbuespen gisa, artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, taldeak egiteko zailtasunak badaude udalerrri edo kuadrilla jakin batzuetan, edo taldeetan desgaitasuna edo premia bereziak dituzten kirolariak badaude.

Artikulu honetan aipatzen diren kirolariak dituzten taldeak partaidetza ibilbideko lehiaketetako sailkapenen azken faseetan edo lehenengo postuetan sartu ahal izango dira.

### **B) Eskola kirolariek adinez dagokienaren hurrengo goragoko kategorian parte hartzea**

Ikasleek adinaren arabera dagokiena baino maila bat goragoko kategorian parte hartu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:

- a) Norberaren kategoriako urteetako azkenekoan jaiotakoa izatea.
- b) Kategoria txikiagoko pertsona inskribatuen kopurua ez izatea taldeko kideen ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa.
- c) Adinez dagokiona baino goragoko kategorian parte hartzeko adingabearen legezko arduradunaren baimen idatzia izatea, jardun horrek berekin dakartzan arriskuen erantzukizuna bere gain hartuz

Kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak, salbuespen gisa, baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, kontuan hartuta udalerrri jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak.

### **C) Talde mistoak (talde kirolariek araudietarako)**

Partaidetza ibilbideko lehiaketetan talde mistoek parte hartu ahal izango dute.

Talde mistoentzat lehiaketa bat antolatu ezin den kasuetan, lehiaketa horiek nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, kideen genero gehiengoaren arabera.

Partaidetza ibilbideko lehiaketen ondorioetarako:

- Mutilen taldeentzat joko da gehienez ere kirolari neska bat dagoen taldea.
- Talde misto gisa onartuko dira sexu bakoitzeko gutxienez bi partaidek osatutako taldeak, eta osaera horri denboraldi osoan eutsi beharko diote.



## **D) Kirolari transexualak**

1.- Eskola ume transexualak kirolaritzat hartuko dira beren sexu edo genero identitatearen arabera; hau da, sentitzen duten sexuarekin edo generoarekin bat datorrenaren arabera.

2.- Ez dira zenbatuko ekipo mistoen ondorioetarako.

## **21. PARTIDEN EMAITZAK**

Etxean jokatzeko duen taldeak Arabako Futbol Federazioari idatziz jakinarazi beharko dio partidaren emaitza, lehiaketaren ondoko lehenengo egun baliaduneko 20:00ak baino lehen. Jakinarazpen hori bi modu hauetako batez egingo da: partidaren akta Federazioaren lokaletan aurkeztuta (Amadeo G. de Salazar plaza, 2 – 1.a, Gasteiz), edota akta faxez (tel. 945-280137) edo posta elektronikoki bidez ([actas@faf-aff.eus](mailto:actas@faf-aff.eus)) bidalita eta gero jatorrizko akta aurkeztuta. Etxeko taldeak emaitzaren berri ematen ez badu, talde hori honela zigortuko da:

- a) Lehenengo aldia: emaitza mantendu egingo da, baina etxeko taldeari puntu bat kenduko zaio sailkapen orokorrean.
- b) Bigarren aldia lehiaketa berean: hiru puntu kenduko dira sailkapen orokorrean eta partidaren emaitza mantendu egingo da.
- c) Hirugarren aldia lehiaketa berean: taldea deskalifikatu egingo da eta izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe. Kasu horretan, deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokoretik ezabatuko dira.

## **22. PARTIDETARA EZ AGERTZEA**

Kirol lehiaketetan inskribatutako kirol erakundeek programatutako lehiaketa guztietan parte hartu beharko dute, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Partida batera joaten ez bada, absentzia federazio antolatzaileari jakinarazi beharko zaio behar besteko aurrerapenez, ezinbesteko kausa izan ezik azken momentuan, haiek nahikoa egiaztatu beharko baitira. Era berean, eragindako erakundeari jakinarazi beharko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Partida batera justifikaziorik gabe ez agertzea erakundearen arau hauste larritzat jotzen da eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan, eta, aurrekoez gain, aipatutako dekretuaren 17. artikuluan ezarritako edozein zehapen ezarri ahal izango da.

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzera agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez-agertzea: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da.



- b) Bigarren ez-agertzea txapelketa berean: partida hiru gol eta hutseko emaitzaz galduko da eta sailkapen orokorrean hiru puntu kenduko zaizkio.
- c) Taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Partida jokatzen hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batez agertzen den taldea ez-agertutzat joko da, eta dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio.

Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

### 23. ZELAIA ESKATZEA ETA AUTOBUSA

Partidak jokatzeke xedez, Arabako Futbol Federazioari zelaiak erabiltzeko baimena eskatu behar zaionean, gutxienez 15 egun lehenago bidali beharko zaio eskaera. Ez da ordutegi aldaketarik onartuko epea igaro ondoren, justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Autobus bat kontratatzeke adina pertsona badago (gutxienez, 10 lagun), bat jarriko da haien eskueran.

Partida egunaren aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehen egin beharko da eskaera.

### 24. PARTIDEN ORDUTEGIA

Lehiaketa eguna larunbata izango da, eta partida hasteko azken ordua **9:00etatik 13:30era** bitartekoa izango da.

**Beste ordutegi edo asteko egun batzuk baimendu ahal izango dira, parte hartzen duten erakundeak ados badaude eta federazioaren oniritzia badago.**

Taldeetako bat beste herri batera joan behar bada partida jokatzeke, hura goizeko **10:30etik 12:30era** arteko orduren batean jokatuko da. **Salbuespen gisa, eta soilik kirol instalazio batean ordu tarte hori osorik betetzen bada talde desplazatuak dituzten partidekin, partidak 9:30 - 13:00 bitartean jokatu ahal izango dira, benjamin kategorian izan ezik. Salbuespena aplikatzeko ez da federazioaren edo Arabako Foru Aldundiaren baimenik beharko, baina diziplina neurriak aplikatu ahal izango dira hura behar bezala aplikatzen ez bada.**

Etxean jokatzen duen taldeak, nahitaez, partida jokatuko den orduaren eta lekuaren berri eman beharko dio Federazioari, partida hori jokatu aurreko asteko ostiraleko 12:00ak baino lehen. Partida jokatzeke ordua eta lekua jakinarazten ez bada, etxean jokatzen duen taldeari partida galdutzat emango zaio, zigor modura. Udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietako partidetan, eta udaleko kirol instalazioen eskatzaileei jakinaraziko zaie araudi hori.

## 25. PARTIDEN ORDUA ALDATZEA

Orduraz aldatu nahi duen taldeak jakinarazi beharko dio nahitaez Federazioari, baina aldatuta hori ez da egingo talde aurkariaren baimenik gabe. Gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko zaio jakinarazpena talde aurkariari. Talde aurkariaren adostasunik izan ezean, eta partida beste ordu horretan jokatzekotan, partida galdutzat emango zaio ordua aldatu zuen taldeari (udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietan).

## 26. INSTALAZIOAK

Partidak jokatzen diren kirol instalazioetan aldagelak egon behar dira.

Gainera, trans kirolariei bermatu beharko zaie askatasunez sentitzen duten sexuari edo generoari dagozkion instalazioak (komunak, aldagelak eta abar) erabili ahal izatea.

## 27. LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketen egutegia ezinbestezko arrazoiengatik baino ez da aldatu ahal izango. Edozein arrazoiengatik (elkarrekin bizitzeko aldiak, ikasketa amaierako bidaia, eta abar) beharrezkoa bada partidaren bat geroratzea, talde aurkaria ados dagoela eta partida zein egun eta ordutan jokatuko den aurkeztu beharko da. Edozein egoeratan, Arabako FUTBOL Federazioari idatziz eskatu beharko zaio, HAMABOST EGUN lehenago.

BENJAMINEN mailan ezinbestezko arrazoiengatik bertan behera utzitako partidak ez dira jokatuko.

Gainerako kategorietan, partidak ezinbestezko arrazoiengatik bertan behera geratzen badira, inplikaturako taldeek Federazioari 48 ordu baino lehenago jakinaraziko diote data berria; ondoren, lehiaketa batzordeak data berria onartzen duen ala ez esan beharko du. Edozelan ere, partida bertan behera utzi den egunetik 15 egun igaro baino lehen jokatuko beharko da. Jai egunik ez badago, partidak lanegunetan programatu beharko dira.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina araudiko ez-agertzei buruzko artikuluak aplikatuko dira.

## 28. - HARMAILETAN ERRESPETUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

Eskola-kirola hezkuntza-, bizikidetza- eta errespetu-iturri izan dadin, "[Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko jarduera-protokoloa](#)" aplikatuko da lehiaketa guztietan.



## FEDERAZIOKO ORDEZKARIAK

Arabako Futbol Federazioak, araudi hau eta eskola-kirolaren helburuak betetzen direla egiaztatzeko, edo egoki deritzonean, bere ekimenez izendatu ahal izango ditu federazioko ordezkariak.

Federazioaren ordezkaria partida hasteko ezarritako ordu ofiziala baino ordu erdi lehenago aurkeztuko da joko-zelaian, eta arbitraje-taldearen eta taldeetako entrenatzaileen aurrean egiaztatuko da. Partida osoan zehar egon beharko du joko-esparruan, eta, behar izanez gero, ondoren.

Federazioko ordezkariaren eginkizunak izango dira:

- a) Futboleko eta areto futboleko modalitateen berariazko araudia betetzen dutela egiaztatzea, bai parte hartzen duten taldeek, bai arbitraje-taldeak.
- b) "Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa" betetzen dela egiaztatzea. Beharrezkoa izanez gero, arbitroari protokoloa aplikatzeko eskatuz esku hartu ahal izango du.
- c) Lehiaketaren aurretik, bitartean eta ondoren erregistratutako gorabeherei buruzko txostena egitea. Txostena Arabako Saskibaloia Federazioaren esku egongo da eta, hala badagokio, Arabako Federazioaren Diziiplina Batzordean, partida jokatu eta hurrengo 48 orduetan.

Federazioko ordezkariak ezingo ditu arbitroen eginkizunak oztopatu, artikuluko honetako b) idatz-zatian aipatutako protokoloa aplikatzea eskatu behar ez badie behintzat.

## **29. - DIZIPLINA ARAUTEGIA**

Eskola Kiroleko Lehiaketan Diziiplina Araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA aplikatuko da.

Erakundeei zehapena ezarri ahal izango zaie lotutako pertsona fisiko batek diziiplina araudiko arauen bat hausten duenean. Honako hauek dira erakundeei lotutako pertsona fisikoak: erakundearekin eskola lizentzia duten pertsonak edo haien senideak, erakundearekin harreman juridikoren bat (lanekoa, boluntariorzakoa edo beste izaera batekoa) duten pertsonak, erakundeko organoetako kideak, erakundeko bazkideak eta erakundearekin zalantzarik gabe lotu daitezkeen ikusleak. Zehapena hauetako bat izango da: puntuak galtzea, partida galtzea, sailkapeneko postua galtzea edo eskola kiroleko lehiaketan diziiplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUaren 17. artikuluan ezartzen den besteren bat.

Aktan jaso ez bada ere, arbitro taldeak eta lehiaketan parte hartzen duen edozein erakunde lehiaketan izandako gorabeherei buruzko txosten bana bidali ahal izango diote erakunde laguntzaileari, aktak entregatzeko ezarritako epea baino lehen. Federazioak arbitro taldeak egin ditzakeen txostenak edo akta luzapenak bidali beharko dizkie lehiaketan parte hartu duten erakundeei.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)



Pilatu egingo dira falta zehagarriak, alegia, ez da futbolaren eta areto futbolaren artean bereiziko, epaileen zigor espedienteen izapidetzean atzerapen edo luzapenik izan ez dadin.

Diziplina arloan, eta bat etorriz uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoarekin, FAF-AFFren Kirol Diziplinako Batzordeak FVF-EFFren Diziplina Araubidearen Arautegia aplikatuko du.

**ARAUTEGI HONETAN JASOTZEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK ARETO  
FUTBOLEKO BATZORDE NAZIONALAREN JOKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO  
DIRA.**



## ARETO FUTBOLEKO ARAUTEGIAREN LABURPEN TAULA

Joko denbora	Benjaminak: 10 minutuko 4 zati eta, horien artean, 2 minutuko atsedenaldiak. Gainerako kategoriak: 25 minutuko 2 zati eta, horien artean, 5 minutuko atsedenaldiak
Denboraren kontrola	Denbora jarraitua.
Baloia	Zirkunferentzia: 59 eta 62 cm bitartean. Pisua: 410 eta 430 gramo bitartean.
Aldaketak	Benjaminak: 4. zatian bakarrik egin daitezke aldaketak. Gainerako kategoriak: aldaketa kopuruak ez du mugarik.
Hutsarteak	Benjaminak: minutu bateko hutsarte bat, azken zatian Gainerako kategoriak: minutu bateko hutsarte bat, zati bakoitzean
Txartel horia	Jokalaria 2 minutuz kanporatzea
Txartel gorria	Jokalaria 2 minutuz kanporatzea eta, gero, haren ordeztu beste bat ateratzea.
Ateko sarea	Ateko sarea (baloia atzeko lerrotik irten denean), atezainak nahitaez eskuarekin egingo du sarea, zelai erdia aurretik boterik egin gabe igaro ahal izango du eta baloia ukitzen duen lehen jokalaria areaz kanpo egon beharko du.
Atezainari baloia uztea	Jokalaria batek baloia bere atezainari eman eta hark arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori jaurtiketa libre ez-zuzenarekin zigortuko da, eta atezainaren areatik gertuen dagoen tokitik jaurtiko da (KIMU eta BENJAMIEN kategorietan kornerra izango da). Ez da zigorrik ezarriko baloia, nahi gabeko ekintza batean, bularrarekin edo buruarekin joz ematen bazaio.
Markagailua	Partidan aldea 8 golekora edo gehiagokora bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeko entrenatzaileak hala eskatzen badu. BENJAMIN kategorian, irabazten den zati bakoitzeko aldeko gol bat zenbatuko da; azken emaitza gehienez lau eta hutsekoa izan ahalko da. a favor, pudiendo obtener un resultado final máximo de cuatro a cero.
Alboko sarea	Alboko sarea oinarekin egin beharko da. Aurkariak 5 metrora egon beharko dira. Baloiak gelditu egon beharko dira. Benjamin eta kimuen kategorietan, arau hori ez betetzeak sarea errepikatzea ekarriko du.
Kornerra	Korner sarea oinarekin egin beharko da. Aurkariak 5 metrora egon beharko dira. Baloiak gelditu egon beharko dira. Benjamin eta kimuen kategorietan, arau hori ez betetzeak sarea errepikatzea ekarriko du.